



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	AIXERROTA BHI					KODEA:015109	2015 - 2016		
ARLOA	GIZARTE-ZIENTZIAK						DATA		
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	X	DBH 4	DBHO 1	DBHO 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<ol style="list-style-type: none"> 1. Estatuaren antolamendu politiko administratiboa ezagutzea. 2. Europar Batatasuna zer den ulertzea. 3. Espainiako eta EAeko lurralde antolaketa, sistema politikoa, erakundeak eta haien eginkizuna adieraztea. 4. Geografiarekin lotuta dauden prozedurak: mapak, grafikoak testuak... egiten eta interpretatzen jakitea. 5. Ekonomia kontzeptuak ezagutzea eta erabiltzea. 6. Mundu globalizatu batean bizi garela ulertzea eta Globalizazioaren ezaugarri nagusiak eta ondorio positiboak eta negatiboak identifikatzea. 7. Sektore ekonomikoak eta jarduera ekonomiko desberdinen ezaugarriak ezagutzea. 8. Espainia eta EAeko ekonomian sektore ekonomikoek duten garrantzia baloratzea. 9. Hirien funtzioak, antolamendua eta erronka handiak ulertzea. 10. Aro Modernoko gertaera historiko eta prozesu garrantzitsuenak jakitea. 11. Gertaera politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak bereiztu eta haien arteko harremana ulertzea, Historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa eskuratzeko. 12. Historian lantzen diren prozedurak: ardatz kronologikoak, mapak, grafikoak, testuak... egiten eta interpretatzen jakitea. 13. Gaur egungo gizarteek dituzten arazo larrienak identifikatu eta jarrera kritikoa garatzea. 14. Gaiak ahoz eta idatziz adierazteko gaitasuna izatea.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<p>Munduko estatuak.</p> <p>Antolamendu politiko EB, Espainia eta E.A.E</p> <p>Munduko ekonomiaren antolaketa. Ekonomia globalizatu.</p>	<p>Nekazaritza eta lehen sektorerko beste jarduera batzuk. Lehen sektorea EBn, Espainian eta EAEn.</p> <p>Industria jarduera: deslokalizazioa eta globalizazioa. Industria EBn, Espainian eta EAEn</p> <p>Hirugarren sektorea orokorrean, eta Zerbitzuak EBn, Espainian eta EAEn.</p>	<p>Aro Modernoa</p> <p>Pentsamolde berriak: Errenazimendua eta Erreforma</p> <p>Espainiar inperioaren sorrera</p> <p>Barrokoko Europa</p>



3

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

- Irakaslearen azalpen teorikoak, mapak, irudiak, dokumentalak, eta power point sistemen laguntzaz.
- Prozedurak lantzeko, mapak, klimogramak, eta mota desberdinetako grafikoak egin eta aztertuko ditugu.
- Edukinak barneratzen laguntzeko, gai bat azaldu ondoren, ikasleek gai horri dagozkion ariketak egin beharko dituzte (normalean, testu liburukoak). Ariketa horiek klasean zuzenduko dira eta horrela, ikasleak ondo ulertu ez duena edo izan dituen zalantzak argitzeko aukera izango du.
- Banakako zein taldeko lanak.
- Ahozko komunikazioa hobetzeko, noizbehinka, ikasleak aurretik ikasitako gaia edo prestatutako lana azalduko du, besteen aurrean.

4

BALIABIDEAK

- Testu liburua eta koadernoak.
- Mapak, Atlasak.
- Entziklopediak
- Bideoak, CDak.
- Internet.
- Prentsa.
- Garraibideen ikas-unitatea era digitalean emango da

TESTU LIBURUA:

GEOGRAFIA eta HISTORIA

ARGITALETXEA: Zubia Santillana

. EZAGUTU saila 3 DBH



5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

Ebaluazio irizpideak: zenbait iturri erabiltzea (grafikoak, mapak, irudiak, testuak) gizarteari buruzko informazioa ulertzeko, eta ondorioak ondo antolatuta eta ulertzeko moduan adierazteko.

Munduko mapa politikoak eta EB, Espainia eta EAekoak ezagutzea, eta mapa batean kokatzen jakitea. Estatuaren antolamendu politiko administratiboa ezagutzea, Europar Batasuneko ezaugarriak jakitea, eta EAeko erakundeak ere bai.

Ekonomia-eragile eta erakunde nagusiak identifikatzea. Zenbait herrialdeetako adierazle sozio-ekonomikoa aztertzea, eta ezaguera hori baliabideen banaketan gertatzen diren lurraldeen arteko desorekak hautemateko erabiltzea.

Lehen sektoreko jardueren ezaugarriak adieraztea, adibide esanguratsu batzuk erabiltzea, eta ezaugarri horiek bereziki Espainia eta Euskadin identifikatzea eta zenbait arazo aztertzea.

Ekonomia-jarduerak eta gizabanakoaren jokabideak ingurumenean duten eragina erakusteko adibideren bat deskribatzea; garapen iraunkorraren moduan eta ingurumenerako kaltegarriak direnak bereiztea.

Bigarren sektorean teknologiarik, enpresa antolamenduari eta kokapenari dagokionez, industriako jarduerak, gune eta pasaietan gertatzen ari diren etapak deskribatzea; Munduko, Espainia eta EAeko ekoizpen gune nagusiak kokatzea eta haien ezaugarriak adieraztea.

Hirugarren sektoreko jardueretan berriki gertatutako garapena eta eraldaketa identifikatzea, gertatzen ari diren ekonomia, eta gizarte harremanetako aldaketak ulertzea. Euskadiko hirugarren sektorea deskribatzea, eta Espainia eta EBri buruz ikasitako ezaugarriekin alderatzea.

Aro Modernoko gertaera historiko nagusiak identifikatzea.

Gaur egungo pentsamoldean Humanismoaren zer ezaugarri irauten duten aztertzea.

Amerikaren konkistak hainbat arlotan izan zituen ondorio motak bereiztea.

Garai desberdinetako artelanak alderatzea, zer alde eta antzekotasun dituzten hautemateko.

Kalifikazio irizpideak

Idatzizko azalpenetan zein ahozkoetan Euskarazko ADIERAZPENA ULERGARRIA IZATEA ETA BERARIAZKO HIZTEGIAREN ERABILERA MENPERATZEA.

Irakasleak agintzen dituen lanak eta ariketak egunean egin beharko dira. Edozein momentutan, ikasleari koadernoak eskatzen bazaio aurkeztu beharko du. Klaserako eta etxerako ariketak ezinbestekoak dira.

Ebaluazioan edota ikasturte amaieran eta notekin zabalantzan egotekotan, lanak erabakigarri bihurtzen dira. Klasera etortzea derrigorrezkoa da. Ez-etortzeak ez du ikaslea etxerako lanak egiterik libratzen, galdetzea zer den irakasleak agindu duena bere ardura da eta.

Ardatzak: Azterketa guztietan kontzeptuak eta prozedurak baloratuko dira.

Azterketak: Gutxienez bi azterketa ebaluazio bakoitzean.

Kalifikazioa: Zenbaki bakarreko nota izan arren, bertan kontuan izango ditugu:

Eduki Kontzeptualak eta prozedurazko edukiak : %85a balioko dute. Hau baloratzeko idatzizko frogak eta ebaluazioan zehar egindako lanak erabiliko ditugu.

Jarrera: % 15a emango diogu. Etxerako lanak ez egiteak penalizazioa ekarriko du.

Ebaluazioan egindako azterketetan aterako noten artean batzuetan bestekoa egingo da, baina horretarako frogak bakoitzean 8,5etik gutxienez 3 puntu ateratzea ezinbestekoa da. Ebaluazio bateko lehenengo azterketan 3 baino gutxiago ateratzen duenak gaintzeko aukera izango du: materia guztia egin beharko du bigarren azterketan eta frogak horretan lortutako nota batzuetan bestekotzat hartuko da. Ebaluazioko nota 5 baino gutxiagokoa izanez gero, ikasleak ebaluazio osoko berreskurapena egin beharko du.



6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Bostera ailegatu ez diren ikasleek laguntza neurriak egin beharko dituzte eta ondoren azterketa bat. Bertan ebaluazioko frogetan sartutako materia osoa eskatuko zaie.

Berreskurapen azterketaren egunean, ebaluazioan zehar egin ez diren lanak eta ariketak aurkeztea baloratuko da. Zalantza egotekotan, irakasleak ikaslearen koadernoak begiratuko du.

Ikasturte amaieran (3. ebaluazioan) ebaluazio guztiak gainditu ez dutenentzat, azterketa global bat egingo dugu. Bertan ebaluazio bakarra suspendituta daukatenean ebaluazio horri dagokion azterketa egingo dute eta bi edo hiru ebaluazio gainditu gabe dutenek materia osoari buruzko azterketa egin beharko dute. Ez-ohiko azterketa bakarra eta globala izango da.